



## **LEHEN HEZKUNTZAKO 3. zikloa: IPUIN SARITUA**

### **ARMIARMA BEREZIA. Sua Herrero Ramos**

Kaixo! Nahia naiz eta gehien gustatzen zaidana da orduak eta orduak egotea leihoan nire lorategiari begira.

Kontatuko dizuet behin nire lorategian gertatu zena:

#### **ARMIARMA BEREZIA**

Bazen behin lorategi eder bat. Hor intsektu txiki pila bat bizi ziren. Haien artean bazegoen armiarma bat, zazpi hanka zituena. Zazpi hanka bakarrik zituelako ezin zuen egin armiarma sarerik eta beste armiarma batzuek bere janaria ematen zioten.

Egun batean esan zioten ezin ziotela janari gehiagorik eman eta joan behar zuela janaria bilatzera.

Armiarma lagundu ahal zion norbait bilatzera joan zen. Buelbaka eta bueltaka ibili zen lorategitik lagundu ahal zion norbaiten bila.

Egun batean inurri bat topatu zuen. Inurria negarrez ari zen.

—Zergatik ari zara negarrez?— Galdetu zion armiarmak.

—Liztor batzuek nire inurritegia suntsitu dute— Erantzun zion inurriak— Lagundu ahal didazu?

—Nik lagunduko nizuke, baina arazo bat daukat; hanka bat falta zait eta horregatik ezin dut armiarma sarerik egin— Esan zion armiarmak.

—Beharbada inurriok zure sarea josten lagundu ahal dizugu— Erantzun zion inurriak.

—Beno, saia gaitezke!— Esan zion armiarmak.

Inurriak armiarma inurritegira eraman zuen, eta hor ikusi zuen liztorrek egin zutena. Orduan armiarma hasi zen sarea ateratzen eta, bitartean, inurriek josten zuten. Horrela, kupula baten antzekoa egin zuten, liztorrak ez sartzeko eta inurritegia ez suntsitzeko. Armiarmak sarean geratzen ziren liztorrak jaten zituen.

Eta hori da nire gurpileko aulkitik ikusi nuena eta konturatu nintzen nik ere nahi dudana lortu dezakedala.